

ta euskera zuzpeitzeko zer bait entzungarri egin bear litzakela. Euskaltzaindia'k ikeraldi bat araxe egin dezake; bañan ori gerfa baño len, batzorde bat auke- ratzea on litzake, onetxek aurre-lanak gerfu ditzan. Batzorde onen buru Aita Intza bera izan bedi, ta Batzarikideak, Napañoa'n beñtan, aukeratu bitza.

3. Kristau-ikasbidea, baztandarez ipintzeko lana Aita Intza beroni egotzi zayo.

4. Gerfika'ko Batzararoan. Bizkai'ko auzo-ikas- tetxetako mufil eta neskatiletik bat edo bi, angoxe azterketara, etofi bitez.

5. Montaner jaunari bere *mapa*'ren zatitxo bat, (batez ere, Jaizkibel eta bere inguruko bazter-izene- tan) ondo ipintzeko Intzagarai euskaltzainak lagundu bezayo.

6. Aita Soloeta-Dima'ren eskutitza irakuñi da. Onetzaz euskaltzainak luzaro itz egin dute, bañan urengo batzaraldirako erabakiya utzi da.

7. *Euskal-atzizkia*'ren lana maipuruak irakuñi du.

Ta otoitzaz, amai eman zayo batzaraldi oni.

Donosti'n, Aldundi-Jauregian, 1922'ko Garagar- ila'ren 27'an.

Aurreko Batzaraldian aipatzen diran euskaltzain berak bildu dira; Azkue, maipuru. Beronek egin ditu araudi-otoitzak, ta asiera eman zayo batzaraldi oni.

1. Aita Soloeta-Dima'ren eskutitzaz oster a ere lu-

zaro itz egin da, ta auxe da erabakia: Aita Soloeta'ren lengo nayan, Euskaltzaindia gogotsu dago; Soloeta'ren alde edo kaltez letozken idaztiyen epaile, Euskaltzaindia izango litzake, ta egokiyen leritxaken lanari, saria eman, bañan orain beñi-beñi azaltzen duen naya (Euskera batasunaz oben idatzi duen txosten egileari saria eman) Euskaltzaindia'k ezin aurera eraman lezake.

2. *Aditz-Jokera*'ren Bildegiak auréz eraman beañ duen arkibide-lana, datořen Ago'era, amaiturik bego.

3. Aita Intza'k aztertu du Aita Lezo'ren lan bat. Aldeauréz azterketa au egin-da, idazti beñi orek Euskaltzaindia'ren onespena azalean agertu dezan. Aita Intza'k diyonez, alako akets batzuek, lan ortan, arkitzen dira noski; bañan abetzaz luze itz-egin ondoren, auxe erabaki da: Onespena eman, aita Intza'k egileari oarpen batzuek egin ezkeroz.

4. Bizka'i'ko auzo-ikastetxetan *Lutelesti'rik* edo Geografia'rik ez omen da. Euskaltzaindia'k ontan af-dura artu beza, lenbailen izan dezaten.

5. Aita Polikarpo gure bekadunaren eskutitza maipuru jaunak irakuri du. Euskaltzañak gogoz entzun dute.

6. Maipuru beronek bere lan edera (*Euskaltzizkiak*) irakuri du.

Ta besterik izan ez da, oiturazko otoitzez batzaraldi au amaitu da.
